EGILLEAREN BESTE BATZUK:

Españi'ko Olerkariak Euskeraz, I
Españi'ko Olerkariak Euskeraz, II
Katalunya'ko Olerkariak
Prantzi'ko Olerkariak Euskeraz
Ego-Ameriketa'ko Olerkariak Euskeraz

LASTER AGERTZEKO:

Inglaterra'ko Olerkariak Euskeraz

ESPAÑI'ko OLERKARIAK EUSKERAZ

(tercera antología)

Etxebarria'tar Juan Anjel

EUSKAL BIBLIOTEKA
DERIO
BIZKAIA
LABAYRU

POETAS ESPAÑOLES EN VASCUENCE

Euskal Biblioteka Labayru
1023943
LITERATURA / N. 3903

Depósito legal: BI 2.144 - 1970
Gráficas Bilbao Gordóniz, 28 - Bilbao

Etxebarria'tar Juan Anjel

POETAS ESPAÑOLES EN VASCUENCE

(tercera antología)

ESKEINTZA:

Etxebarrieta'tar Xabier'i
(G. B.)

Fray Iñigo de Mendoza
(siglo XV)

COPLAS DE «VITA CHRISTI»

Invocación del actor

1 Aclara, sol divinal,
la çerrada niebla obscura
que en el linaje humanal,
por la culpa paternal
desdel comiençó nos dura;
despierta la voluntad,
enderesça la memoria,
porque sin contrariedad
a tu alta magestad
se cante divina gloria.

2 Aquella gran conpasión,
aquel amor entrañal
que por nuestra salvaçión
hizo sofrir tal passión
a tu fijo natural;
aquella bondad divina
que le forçó a ser ombre
enmiende lo que se inclina
en esta carne mesquina
a ofender el tu nombre.

«VITA CHRISTI»-ren ABESTIAK

Egillearen deia

Argitu, euzki jainkozko,
laiño sarratu illuna,
errua Aitak bai dauko,
asikeratik darraiko
giza-batzari zuzena.
Iratzartu guraria,
zuzendu eizu oroitza,
zure erregetza goiari,
ez beza ezer jarkia,
abes daiten Jainko-aintza.

Erruki neurbako ura,
erraietako maitea,
ainbesteko nekaldira,
gerok gaitezan zerura,
jun zure kide semea.
Jainko-ontasun arek, bear
baitzun egiten gizona,
aragi ziztrin ontan jar
dezala zuzenki makur
dana iraintzen zure izena.

Baltasar del Alcázar
(1530-1606)

A INES

Oyeme, así Dios te guarde,
que te quiero, Inés, contar
un cuento bien singular
que me sucedió esta tarde.

Has de saber que un francés
pasó vendiendo calderas...
Estáme atenta: no quieras
que lo cuente en balde. Inés.

Llamelo, y desque me vido...
Escúchame con reposo,
que es el cuento más donoso
de cuantos habrás oído.

Díjele. «Amigo, a contento,
¿cuánto por esta caldera?...»
¿No me escuchas?... Pues yo muera
sin óleo, si te lo cuento.

INES'I

Jainkoak onez gorde zaitzala,
entzun, agertu nai dautzut, Ines,
gertakizun bat oso itzala
gaur arrastion yazo yatanez.

Prantses bat joian ortikan, jakin
bear dozu-ta, galdarak saltzen...
Zagozkit adi: arren, ez egin,
Ines, ipuiña alperrik daiten.

Deituten dautsot ta ni ikusiaz...
Entzun eidazu modu onean,
gertaera au dozu askotaz
politena adi dituzunetan.

Lagun, diñotsot, gerturik ba'az,
zenbatean dok galdara salgai?...
Ez daustazula adi?... Ilgo al naz
igurtzi barik, jarrai ba'nengi.

San Juan de la Cruz
(1542-1591)

I
NOCHE OSCURA

Canciones del alma que se goza de haber llegado al alto estado de la perfección, que es la unión con Dios, por el camino de la negación espiritual.

1. En una noche oscura
con ansias en amores inflamada,
¡oh dichosa ventura!
salí sin ser notada,
estando ya mi casa sosegada.

2. A escuras, y segura
por la secreta escala disfrazada,
¡oh dichosa ventura!
a escuras, y en celada,
estando ya mi casa sosegada.

3. En la noche dichosa
en secreto, que nadie me veía,
ni yo miraba cosa,
sin otra luz y guía,
sino la que en el corazón ardía.

4. Aquesta me guiaba
más cierto que la luz del mediodía,

GAU ILLUNA

Osotasunaren gorengo maillara, gogozko ukapenaren bidez dan Jaungoikoagazko batasunera eldu dan arimaren pozezko abestiak.

Gau-aro illun batez
maitetasunezko irrikaz sutan,
benetan zorionez!
oarkabe urten nintzan
nire etxea bakez zegon orduan.

Illunez ta ziurra
ezkutuko maillan antzaldaturik,
bai zorion jatorra!
illun ta ezkuturik,
nire etxea zala bakez ixillik.

Gau-aro zoriontsuz
ixillik, iñork ez nindun ikusten,
besterik ez gogartuz,
bestela joan zuzen,
biotzean nebana baizen.

Gidari zuzenago
neban eguerdi-argia baiño,

a donde me esperaba,
quien yo bien me sabía,
en parte donde nadie parecía.

5. ¡Oh noche, que guiaste,
oh noche amable más que el alborada:
oh noche que juntaste
Amado con Amada,
Amada en el Amado transformada!

6. En mi pecho florido,
que entero para él solo se guardaba,
allí quedó dormido,
y yo le regalaba,
y el ventalle de cedros aire daba.

7. El aire de la almena,
cuando yo sus cabellos esparcía,
con su mano serena
en mi cuello hería,
y todos mis sentidos suspendía.

8. Quedéme y olvidéme,
el rostro recliné sobre el Amado,
cesó todo y dejéme,
dejando mi cuidado
entre las azucenas olvidado.

antxe niri itxaro,
ba-nenkin nik noraiño,
iñor agertzen ez zan lekuraiño.

Gau-aro gidaria,
eguantz-aldean illuntze ederra:
zuk, gaba, Maitatia
Maiteaz lot bearra,
Maite-Maitatiak bat egin dira!

Nire bularra liliz,
osorik arentzat zegon gordea,
ta bera antxe lo geldiz.
Nik emoten maitea
ta izai-abarrek sortzen aizea.

Torreko aizeak nik
beraren adatsa zabaldu-ala,
eskuak bigundurik,
nire iduna makala
jar, zentzunak oro sorgor zirala.

Geldi-azturik nengon,
Maiteagan jarri mosua makur,
dana amaitu ta emon
ein nintzan nire adur
zitori-artean itzirik uzkur.

José de Espronceda
(1808-1842)

ILUSION

Cuando la vez primera de mis ojos
Llenaste, ¡oh mar!, el ambicioso anhelo,
Era tan niño que creí que el cielo
Estaba de mis plantas al nivel.

Y alegre al ver sin puertas la morada
De que sabía maravillas tantas
Quise moviendo mis sencillas plantas
Al cielo entrar para quedarme en él.

LILLURA

Oi itsaso, nire begion gurari
andia lenengoz zanean estali,

ain ume ninduzun, zerua, uste neban,
eta oin-azpiok alkarren parean.

Ta ain zoragarrizko jo neban egoitza
ate barik ikus ta, pozarren ozta,

nire oin bakunoi eragin ta gura
izan neban, bertan lotzeko, zerura.

Ramón de Campoamor
(1817-1901)

EL BUSTO DE NIEVE

De amor tentado un penitente un día,
con nieve un busto de mujer formaba,
y el cuerpo al busto con furor juntaba,
templando el fuego que en su cuerpo ardía.

Cuanto más con el busto el cuerpo unía,
más la nieve con fuego se mezclaba,
y de aquel santo el corazón se helaba,
y el busto de mujer se deshacía.

En tus luchas, ¡oh amor de quien reniego!,
siempre se une el invierno y el estío,
y, si uno ama sin fe, quiere otro ciego.

Así te pasa a ti, corazón mío,
que uniendo ella su nieve con tu fuego,
por matar de calor, mueres de frío.

EDURREZKO BULARRA

Egun batez, maitez zirikatuta,
andraren bularra eiten zan ari,
edurrez, damutu bat; bularrari
soiña itsu jar, gorputz-sua ibituta.

Bularrari soiña zenbat ezar ta
edurra suagaz geiago nasi.
Deun ari biotza izotz, ta andrari
bularra gelditzen yakon urtuta.

Zure burruketan, ein dizut uko
maitasun, uda ta negu batera.
Batek siñisge, itsu bestek maiteko.

Olan zuk, biotza. Berak edurra
zure suaz batu; beroz ilteko
zerori otzarren il eiten zara.

Manuel del Palacio
(1832-1906)

AMOR OCULTO

Ya de mi amor la confesión sincera
Oyeron tus calladas celosías,
Y fue testigo de las ansias mías
La luna, de los tristes compañera.

Tu nombre dice el ave placentera
A quien visito yo todos los días,
Y alegran mis soñadas alegrías
El valle, el monte, la comarca entera.

Sólo tú mi secreto no conoces,
Por más que el alma con latido ardiente,
Sin yo quererlo, te lo diga a voces.

Y acaso has de ignorarlo eternamente,
Como las ondas de la mar veloces
La ofrenda ignoran que les da la fuente.

MAITASUN EZKUTUA

Zure leio-sare ixillak entzun
dabe nire maite-aitor zintzoa,
ta nire antzien da lekukoa
illargia, itun diranen lagun.

Atsegiñez zure izen erantzun,
egunero ikertzen nik txoriñoa.
Arana, mendia ta lur osoa
argitzen datoz nik amets-poztasun.

Zeuk bakarrik nire ixilkia ez
ezagun, taupada beroz ozenki
gogoak diñotsun arren, nik nai ez.

Ta beti ez jakin izango, aurki.
Itsas-olatuak be, igi-bearrez,
iturri-jario dala ez daki.

Augusto Ferrán
(1835-1880)

LA SOLEDAD

CXLIV

Los que quedan en el puerto
cuando la nave se va,
dicen, al ver que se aleja:
¡Quién sabe si volverá!

Y los que van en la nave
dicen, mirando hacia atrás:
¡Quién sabe, cuando volvamos,
si se habrán marchado ya!

BAKARTADEA

CLXIV

Kaian gelditzen diranak
izontzia joatean,
urrun dala, ba-diñoe:
biurtuko al da, agian?

Ontziz doazanak, barriz,
olan, atzera begira:
Gu itzuli orduko alde
eginda izango ote dira?

Gustavo Adolfo Becquer
(1836-1870)

XI

—Yo soy ardiente, yo soy morena,
yo soy el símbolo de la pasión;
de ansia de goces mi alma está llena;
¿a mí me buscas? —No es a ti, no.

—Mi frente es pálida; mis trenzas de oro;
puedo brindarte dichas sin fin;
yo de ternura guardo un tesoro;
¿a mí me llamas? —No, no es a ti.

—Yo soy un sueño, un imposible,
vano fantasma de niebla y luz;
soy incorpórea, soy intangible;
no puedo amarte. —¡Oh, ven; ven tú!

XI

Sutsua nozu ta baltzarana,
gutiziaren irudia naz,
gogoa atsegin-guraz dodana.
Nerau billatzen ete? Ez, i ez az.

Bekoki zurbil, urrezko motots,
zori betea al neuke eskeiñi.
Altxor bat daukat gozoan gozoz.
Nerau deituten ete? Ez, ez az i.

Amets lakoa nozu, eziña,
laiño ta argizko deusezko mamu.
Gorputz gabea, uki-eziña.
Ezin zaut maite. Bai, etorri zu!

Miguel de Unamuno
(1864-1936)

EN MI CUADRAGESIMO SEXTO ANIVERSARIO

29-IX10.

Ahora que ya por fin gane la cumbre,
a mis ojos la niebla cubre el valle
y no distingo a dónde va la calle
de mi descenso. Con la pesadumbre

de los agüeros vuelvo hacia la lumbre
que mengua la mirada. Que se acalle
te pido esta mi ansión y que tu dalle
siegue al cabo, Señor, toda mi herrumbre.

Cuando puesto ya el sol contra mi frente
me amaguen de la noche las tinieblas,
Tú, Señor de mi años, que clemente

mis esperanzas con recuerdos pueblas,
confórtame al bajar de la pendiente;
de las nieblas salí, vuelvo a las nieblas.

BERROGEI TA SEI URTE BETETZEAN

29-IX10.

Orain, irabazi dizut gaillurra,
laiñoak begioi arana ken
ta ez dakit nora joko ote duen
nire bera-aldiak. Susmoen lorra!,

begirakunea aul oi dauan su-garra
begiratuten dot. Ixildu, arren,
nire irrits-tzar au ta zure ezten
orrek ken beist garaiz, Jauna, ugerra.

Eguzkia nire bekoki-aurkez
dala, gau-illunak nigan sartzear,
nire urteen Jauna, biotz-bigunez

nire itxaropena oroi biziz jar
dozuna, aldatz-beran el nire onez.
Laiñotatik urten naz ara bear.

Valentín Reparaz Landa
(1866-1906)

BRINDIS GASTRONOMICO-PERIODISTICO

En esta mesa redonda
me estoy poniendo redondo;
¡qué diferencia tan honda
de un artículo de fondo
a un artículo de fonda!

GORA SABELA TA PAPELA

Mai biribil onetan
ari naz biribiltzen.
Zenbat alde dagoan
idazgai sakon baten
ta jangai on artean!

Emilio Carrere
(1880-1947)

ALTA NOCHE

Voy vagando por las calles
sombrías de un barrio viejo,
y me sigue la fatídica
silueta de un perro negro.

Es tarde. La ciudad duerme
en el nocturno misterio;
mueren las últimas notas
de un violín a lo lejos.

Brilla la luz de una lámpara
tras un balcón entreabierto.
Quizá una novia que sueña
en amoroso desvelo.

Voy vagando por las calles
con mis negros pensamientos.
Quiero evocar dulces cosas
para olvidar... y no puedo,

que la luz que iluminaba
mis negruras de bohemio,

GAU-BERANDUAN

Ballara zarreko kale
illunetan zear deslai
nijoa. Txakur baltz baten
irudia nire jarrai.

Berandu da. Uriak lo
gabaren ezkutukian.
Arrabita-ots geldia
ilten da an urrutian.

Balkoi erdi zabal baten
atzetik argi bat diz-diz.
Neska bat edo, ametsez
dago gau-bela maitatiz.

Neure burutapen beltzak
aldean, kaleetan zear.
Gauz gozoak, aztutzeko,
nai ditut gogora ekar...

Eta ezin! Nire urrats
galdu-baltzen lagun bipil

mi abnegada compañera,
esta horrible tarde ha muerto.

Y allá en la vieja buhardilla,
duerme su más dulce sueño.
Duerme sin caja ni flores,
tendida en un paño negro.

Toda la noche he llorado
junto a aquel querido cuerpo,
hasta que una suave música
llegó a desgarrar mi pecho.

De un alegre hogar en fiesta
eran los plácidos ecos.
¡Qué amargo es saber que hay dicha
cuando el alma está sufriendo!

Y he salido de la casa
y la he dejado durmiendo.
Sufro mucho... Necesito
soñar que sólo es un sueño.

argia, gaurko arrasti
ikaragarrian yat il.

An, ganbara zarrean, lo
ta lo da goxoki. Kutxa
lorerik gabe, zapi baltz
batean bildurik datza.

Gau guztian negar ein dot
soin maite aren ondoan,
soiñu gozo batek nire
bularra urratu artean.

Oiartzun leuna etorren
jai dun etxetik bezela.
Zorion-izen mingotsa
gogoa miñetan dala!

Etxetik urten ta lotan
itxi dot. Ni min eta min...
Ametsa baiño ez dala
bear dautzut amets egin.

Mauricio Bacarisse
(1895-1936)

BOLIDO

De amor se morían,
de pena y de ansia.
¡No se habían visto
en una semana!

La fuerza del mundo
sus labios guardaban,
deseo infinito
de noche estrellada.

¡Pálido mancebo,
celeste zagala,
diérais por besaros
la vida y el alma!

No fue un beso. Fue una
explosión tan rara
que despertó a toda
la urbe adormilada.

Su estruendo de música
tuvo eco de llamas.

ZERU-ARRI

Maitez ilten ziran,
irrits ta naigabez.
Astebete zala
alkar ikusi ez!

Munduko indarra
ezpanetan gorde,
gau izartuaren
ioran mugagabe.

Mutiko zurbilla,
zeru-neskatoa,
mosu baten truke
bizi ta gogoa!

Mosu barik lertze
bakan bat izan zan,
lokartu uria
iratzartu eban.

Bere eres-zaratak
garrak arri-bizi.

¡No quedó un cristal
en una ventana!

¡Ay, cristalerías
gemelas del agua;
acequias de luces
que el paso vedabais!

Entraban los ángeles
en todas las casas,
con alas de aurora,
con vestes de auras.

Leioetan ez zan
leiarrik agiri!

Ene leiarkiak,
uraren antzeko!
Argizko erreten
urratsen oztopo!

Aingeruak sartzen
etxe guztietan,
goizalde-egodun,
aize-jantzietan.

José María Pemán
(1897)

EPITAFIO

Por caridad, mujer, de aquel que preso
del dolor y el amor por ti ha vivido,
pon, al pasar, sobre esta tumba un beso,
como un recuerdo de lo que no ha sido.

ILLARTITZA

Zugaitik maite-miñez bizi izan
dan aregaitik, andra, ipiñi
igarotzean, illobi ontan
mosu bat izan-ezaren oroi.

Dámaso Alonso
(1898)

ORACION POR LA BELLEZA DE UNA MUCHACHA

Tú le diste esa ardiente simetría
de los labios, con brasa de tu hondura,
y en dos enormes cauces de negrura,
simas de infinitud, luz de tu día;

esos bultos de nieve, que bullía
al soliviar del lino la tersura,
y, prodigios de exacta arquitectura,
dos columnas que cantan tu armonía.

¡Ay, tú, Señor, le diste esa ladera
que en álabe dulce se derrama,
miel secreta en el humo entredorado!

¿A qué tu poderosa mano espera?
Mortal belleza eternidad reclama.
¡Dale la eternidad que le has negado!

NESKA BATEN EDERRAREN ALDEKO OTOITZA

Ezpanen egoki gartsua zeuk eman,
zure sakontasun-illintiarekin
eta baltzezko ur-bide itzal birekin,
mugagabe-leizak, zure egun-argitan;

liñu leuna ikutuz dardarez zituan
edurrezko tontor orreik, zure ereskin
gozoa dituzun metarri bi, bikain,
etxegintza guztiz zeatz bai'lirean.

Oi, Jauna, zuk emon zeutson albo ori,
adar bigunaren antzera abailtzen
dana, urrezko ketan ostendu eztia.

Zure esku altsua zertan dozu geldi?
Edertasun ilkor, betiraun eskatzen.
Emon uka dozun betiko bizia!

Susana March
(1918)

LA META

He cambiado todas mis rosas
por un lugar cerca del fuego.

Por el sosiego de mi alma,
la negra seda de mi pelo.

He vendido mis esperanzas
por un puñado de recuerdos.

Mi corazón por un reloj
que sólo cuenta el tiempo muerto.

Mi última moneda de oro
se la di de limosna al viento.

Ahora ya no me queda nada.
Desnuda estoy como el desierto.

Un oasis de mansedumbre
está brotándome en el pecho.

ELBURUA

Truke egin dodaz
neronen lili
guztiak toki
batekin sutan.

Nire arima-
artea adats
zikirio baltz
ordez trukatu.

Nire itxaron
guztiak oroi-
pilloz saldu oi
ditut dan-danak.

Ilko aldia
bakarrik neurtzen
daun erlojuren
truke biotza.

Nire urrezko
azken txanpona
emon limosna
lez aizeari.

Orain ezertxo,
eremu legez
nagotzu gabez,
ezer ez dot-ta.

Ta lasaitasun-
zabalgunea
ba-dot ernea
bular-barruan.

Trina Mercader
(1919)

Yo soy esa muchacha que ha besado la tierra
para posar en algo los besos que le sobran.

Yo soy esa muchacha que desea callando
lo que se aleja siempre de su mano vacía.

Blanda pulpa jugosa para mecer el aire;
blando temblor intacto que una caricia anega.

Sedienta y absoluta,
muchacha que ha besado la curva de sus hombros,
que se acaricia, lenta, con dolida ternura.

Garganta donde canta la sagrada alegría,
donde los gritos crecen de plenitud ahogados.

Muchacha sola y firme que, arrebatadamente,
para sí misma crece su vegetal milagro,

cuando la tierra vuelca su prometida entrega
y una dulzura virgen va invadiendo los ramos.

Lurrari mun dagion neskatilla ori naz,
gaiñez diran mosuak nunbait jarri-asmoaz.

Ni naz, bere esku utsetik alde egiten dauana,
ixillik bai ixillik opa izaten dodana.

Mamin bigun-gozoa aizea kulunkatzen;
ikara samur-ukigabea laztantzen.

Egarriz, orokor, mun dagit lepo-biurra
ta astiro laztantzen mingots eta samurra,

Alaitasun doneak nire eztarrian dabes,
berton didarrak azi, itoz betetasunez.

Neska bakar-sendoa, beretzat, oldartsuki,
beraren landararen alatza oi dau azi,

lurrak agindutako beraren emaria
emon ta adarrez jabe dala gozo-garbia.

Vicente Arbeloa

VENIDA ES, VENIDA

Venida es, venida
al mundo la vida...
(Juan Alvarez Gato)

La vida abundante
la luz desbordante

La verdad sabrosa
con color de rosa.

El suave camino
para el peregrino.

Venida es, venida
al mundo la vida...

ETORRI DA-TA

Or dogu etorria
lurbirara bizia.
(Juan Alvarez Gato)

Bizitz ugaria
gaiñezko argia.

Egia gozoa
larrosa-margoa.

Bide zelai-leuna
bidaztiarena.

Orra etorria
mundura bizia...

Gabriel Celaya

SAGAR-DANTZA

Esta tarde, en el prado
verde y rosa de oro,
bailan las muchachas
con sus sombras moradas.

Las leves nubecillas
se enredan en las ramas
y la brisa nos cuenta
secretos en voz baja.

Las muchachas ofrecen
—en un arco sus brazos—
dos manzanas, y bailan
en círculo los astros.

Todo es sencillo, y noble,
y antiguo y consabido.
Mas ¿quién es ese joven
que se mezcla en la danza?

Nadie sabe su nombre.
Las muchachas se espantan.

SAGAR-DANTZA

Gaur arratsaldean zelai
musker, larrosa-urrezkoan,
beren gerizpe moreekin
neskak ari dira dantzan.

Odei arin-ezerezak
adarretan nasten dira
ta aizeak aopean
ixilkiak belarrira.

Neskak eskeintzen dituzte
—besoak uztairen antza—
sagar bi eta izarrak
bildurik dagie dantza.

Dana da bakun-zintzoa,
antziñako ta jakiña.
Dantza-aldian sartzen dan
gazte ori nor da, baiña?

Bere izena iñork jakin ez.
Neskatillak izuturik.

Tan sólo los ancianos
sonríen lo que callan.

¿Quién es? ¿Quién es? ¿Quién viene?
¿Quién surge siempre indemne?
Las muchachas no saben
que en su danza un dios vuelve.

Y entonces suena y salta,
diez por cien, cien por mil,
el dios pagano y vasco
del txistu y tamboril.

Agureak soillik ixil
dutena barrez emonik.

Nor, nor da? Nor ote dator?
Beti be onez nor jaiki?
Neskak jakin ez ta euren
dantzan jainko bat itzuli.

Orduan asten da otska—
jauzika, sendo-gogorra—
txistu ta danboliñaren
baso-jainko euzkotarra.

Federico García Lorca
(1898-1936)

III

Dos bueyes rojos
en el campo de oro.

Los bueyes tienen ritmo
de campanas antiguas
y ojos de pájaro.
Son para las mañanas
de niebla, y sin embargo

horadan la naranja
del aire, en el verano.
Viejos desde que nacen
no tienen amo

y recuerdan las alas
de sus costados.
Los bueyes
siempre van suspirando
por los campos de Ruth

en busca del vado,
del eterno vado,
borrachos de luceros
a rumiarse sus llantos.

Dos bueyes rojos
en el campo de oro.

Idi gorri bi,
larra urregorri.

Idiak dituzte kanpai
antxiñakoen mugira
ta txorien begirakuna.
Laiño-goizerako dira,

ta alan bere aizearen
naranja zulatzen, udan.
Jaiotzez zarrak ez dute
jauberik eta gogoan

daroez euren alboen
egoak. Idiak beti
Ruth'en alorretan zear
dijoakizuz negarti.

betiko igarobidean
billa, izarrez mozkortuz,
igarobidean billa,
euren negarrak ausnartuz.

Idi gorri bi,
larra urre-gorri.

ARLEQUIN

Teta roja del sol.
Teta azul de la luna.

Torso mitad coral,
mitad plata y penumbra.

ARLEKIN

Eguzkiaren titi gorria.
Titi urdiñez iretargia.

Gorputz-enborra erdia koral,
erdia zidar, erdia itzal.

NOCTURNOS DE LA VENTANA

Un brazo de la noche
entra por mi ventana.

Un gran brazo moreno
con pulseras de agua.

Sobre un cristal azul
jugaba al río mi alma.

Los instantes heridos
por el reloj... pasaban.

Gauaren beso bat
leioan barnerat.

Besotzar baltzidun,
urezko ereztun.

Leiar urdin-gaiñez
gogoa ur-jolasez.

Erlojuan zauriz
liparrak... igaziz.

LA SOLEA

Vestida con mantos negros
piensa que el mundo es chiquito
y el corazón es inmenso.

Vestida con mantos negros.

Piensa que el suspiro tierno
y el grito, desaparecen
en la corriente del viento.

Vestida con mantos negros.

Se dejó el balcón abierto
y el alba por el balcón
desembocó todo el cielo.

¡Ay yayayayay,
que vestida con mantos negros!

BAKARTADEA

Oial baltzez jantzita,
lurra txiki, biotza
edatsu dirala-ta.

Oial baltzez jantzita.

Negar-antsi samurra
ta oiua aizetzan
gal baitira, ziurra.

Oial baltzez jantzita.

Sapailloa zabalik
utz ta goizak ortzea
sartu zion bertatik.

Ene, ai ene,
oial baltzez jantzita!

«DE PROFUNDIS»

Los cien enamorados
duermen para siempre
bajo tierra seca.
Andalucía tiene
largos caminos rojos.
Córdoba, olivos verdes
donde poner cien cruces,
que los recuerden.
Los cien enamorados
duermen para siempre.

Eun maiteminduak lotan
dagotzuz lur legorpean

betiko. Andaluzia'k
bide luze ta gorriak.

Kordoba'k, barriz, eun gurutz
jartzeko, oroigarri, ba-dauz

oliondo orlegiak. Eun
maiteminduak lo iraun.

Juan Ramón Jiménez
(1881-1958)

VELETA

Viento del sur,
Moreno, ardiente,
Llegas sobre mi carne,
Trayéndome semilla
De brillantes
Miradas, empapado
De azahares.

Pones roja la luna
Y sollozantes
Los álamos cautivos, pero vienes
¡Demasiado tarde!
¡Ya he enrollado la noche de mi cuento
En el estante!

Sin ningún viento,
¡Hazme caso!
Gira, corazón;
Gira, corazón.

Aire del Norte,
¡Oso blanco del viento!

AIZE-ORRATZA

Ego-aize baltzaran, sutsu,
nire aragian gain zatoz
begirakune dizditsuen
aziaz, limoi-lili ezkoz.

Illargia gorri daminzu,
lertxun atxilloak zizpuruz.
Baiña lar belu zatoz! Nire
ipuin-gaba arasan bilduz.

Aizerik gabe,
entzun eidazu!
Ibil biotza,
bira egizu.

Ipar-aizea, aizearen
artz zuri, nire aragira
dakarzu Ipar-aldeko
egun-urratzeen dardara.

Llegas sobre mi carne
Tembloroso de auroras
Boreales,
Con tu capa de espectros
Capitanes,
Y riyéndote a gritos
Del Dante,
¡Oh pulidor de estrellas!
Pero vienes
Demasiado tarde.
Mi almario está musgoso
Y he perdido la llave.

Sin ningún viento,
¡Hazme caso!
Gira, corazón;
Gira, corazón.

Brisas, gnomos y vientos
De ninguna parte.
Mosquitos de la rosa
De pétalos pirámides.
Alisios destetados
Entre los rudos árboles,
Flautas en la tormenta,

Zure mamu buruzagien
jantziz eta Dante'ri buruz
barre-zantzoka, oi izarren
garbi-zuritzaille. Ez orduz

oi zatoz, bai beranduegi.
Nire gogoaren egoitza
oroldioz betea dozu
ta galdu dizut ango giltza.

Aizerik gabe,
entzun eidazu!
Ibil biotza,
bira egizu.

Egurats, gnomo ta iñungo
aizeak. Larrosa orritzar-
eultxoak, Aize ugatz galduta
zugatz lakar-latzetan zear.

Ekaitz-arteko txirulak,
utz naizue! Nire oroitza
kate latzez ta arratsa txioz
damin txoria atxillo datza.

¡Dejadme!
Tiene recias cadenas
Mi recuerdo,
Y está cautiva el ave
Que dibuja con trinos
La tarde.

Las cosas que se van no vuelven nunca,
Todo el mundo lo sabe,
Y entre el claro gentío de los vientos
Es inútil quejarse.
¿Verdad, chopo, maestro de la brisa?
¡Es inútil quejarse!

Sin ningún viento,
¡Hazme caso!
Gira, corazón;
Gira, corazón.

Joan doazan gauzak iñoiz
ez yatortzuz atzera. Ori
edonok daki ta aizetzaren
moltso argietan naasi

alperrikakoa da espaz
astea. Ez da olan, lertxun,
aize bigunaren maixua?
Alper-alperrik espaz jardun!

Aizerik gabe,
entzun eidazu!
Ibil biotza,
bira egizu.

LA LUNA EN EL PINO

La luna estaba en el pino,
rosa en el cielo violeta.
...Hoy viene en una carreta
muerto, sin rumor, el pino.

¿Vendrá la luna en el pino?

Sobre el polvo del camino,
esa dulzura violeta
¿la baja el cielo, carreta,
a su luna en el camino?

¿Pasa la luna en el pino?

¡Qué tristemente va el pino
rozando el suelo violeta!
Llanto de luz la carreta
llora del verdor del pino

¿Llora la luna en el pino?

¿Dónde está el lirio divino
naciente solo y violeta?

ILLARGIA PIÑUAN

Illargia lerrondoan,
ortze morez larrosazko.
...Gaur piñua illik, otsbako,
ba-dator burdi batean.

Piñuan ete illargia?

Bideko autsaren gaiñez
gozotasun morezko ori,
zeru-burdiak ekarri
bere illargia bidez?

Piñuz digaro illargia?

Piñua itunik doa
lurraren morea ikutuz!
Burdiak argi-zizpuruz
piñu orlegiz malkoa.

Piñuz uluka illargia?

Nun Jaungoikozko lilia
bakar-more sortukoa?

¡Lleva rosa la carreta
como un resplandor divino!

¿Está la luna en el pino?

La luna estaba en el pino,
rosa en el cielo violeta.
...Hoy se va en una carreta
muerto, sin rumor, el pino

¿Se va la luna en el pino?

Burdia arrosa daroa,
Jainkozko argi-izpia!

Piñuan ete illargia?

Illargia piñuan zan,
ortze morez larrosazko.
...Gaur piñua illik, otsbako,
ba-doa burdi batean.

Piñuz al doa illargia?

OJOS CELESTES

Yo creí que el color azul del cielo
bajaba, a veces, a la tierra oscura,
y tras de él, en cazas de dulzura,
corrió, de flor en flor, mi desconsuelo.

Casi lo tuvo mi ardoroso anhelo
un día, ¡clara mariposa pura!
...Pero la mariposa era la dura
sombra de un delirar de mi desvelo.

Ojos celestes; como el cielo, estáis
encima de la tierra —doble rosa
que oculta un hondo fondo vespertino—.

¡Como el cielo también, nunca bajáis
a la miseria de la carne umbrosa
en que se pierde mi anhelar divino!

ZERUTAR BEGIAK

Zeruko margo oztin lur illunera
batzutan jatsi oi zala uste nik.
Gozotasun-eizaz, aren atzetik,
lorez lore ibil zan nire mindura.

Nire irrits biziak ia eskura
zizun egun baten. Orrelakorik,
mitxeleta argi-uts! Nire antsitik
zetorren zoramen-geriz gogorra.

Zerutar begiok, zerua legez
zagoze lurraren gain-lore bikoitz
arrats-ondo sakon bat ezkutatuz—.

Zerua bezela, iñoiz jatsi ez
nire jainko-irritsa gal dan zorigaitz—
dun aragi illun onetan sartuz!

I

Era una dulce ribera
que se pasaba la tarde
soñando; por su corriente
iban flores y cantares...

La tristeza de sus álamos
blancos se hundía en el valle,
y llevaba tanta bruma,
que los pastores soñaban
en sus novias y en sus madres.

Hay campos muertos de pena;
melancólicos paisajes
que hacen llorar, con sus ríos
bellos y tristes, sus sauces

de luengas ramas de llanto...;
hay quejas que llaman árboles,
almas nombradas remansos,
corazones como valles.

Por esta dulce ribera
iban flores y cantares,
y nadie supo de dónde
se los mandaba la tarde.

I

Ibai-ondo samur bat zan
arratsaldea ametsez
emoten ebana; bere
ur-bera abesti-lorez...

Beraren lertxun zurien
ituna aranean murgil
zitzaizun ta ainbesteko
laiñoa zekarren zintzil,

artzain-mutillak beraien
emaztegaiekin eta
beraien amekin egin
oi zizuten ameseta.

Tamalez il zelaiak ba—
dira, alderdi kadentsuak
negar eraiten bai dute:
beren lats eder-itunak,

beren sarats negarrezko
adar luzedun; zugatzai
deika aiotsak, gogoak ur—
geldi, biotzak aran-gai.

Ibai-ondo samur ontan
lora-abestiak ibilli
ta iñork ez eban jakin
arratsak nundik bidali.

Antonio de Río

CLARO DE LUNA

Claro de luna,
noche silente,
un viento corre
muy dulce y suave.

Las nubes tejen
mantos de lana;
la luna templa
la noche fría.

El aire acuna
la flor del tiempo;
brota un suspiro
y, una esperanza.

Alas de espigas
rozan la pena
de un sentimiento,
casi olvidado.

Claro de luna
noche de plata,
ya mi silencio
crece dolido.

ILLAZKI

Iretargia,
gau-aro ixil,
gozo ta bigun
aizea dabil.

Odeiak euntzen
artule-mintza.
Iretargiak
ozten gau otza.

Aldi-lorea
zabuka aizetan.
Intziri-itxaro
bat, bat-batetan.

Erdi aztuko
sentipen baten
miña galburu-
egoak jotzen.

Iretargia,
zidarrezko gau.
Oiñazez azten
ixiltasun au.

Y viene a mi alma
todo el recuerdo
de claras horas
de mar y risas.

¡Cómo quisiera
volverme niño,
joven mi madre
y nuestro ensueño!

Dices, lunita,
que se ha hecho tarde.
¡Cómo a las flores
de vida breve!

Itsas-barrezko
ordu argien
oroi guztia
gogoratuten.

Ume biurtu
gura neukela,
ama ta ametsa
gazte dirala!

Iretargitxo,
berandu omen.
Bizi laburdun
lorai alantxen!

BILLABIDEA

Alcázar, Baltasar del 9
Alonso, Dámaso 63
Arbeloa, Vicente 75
Bacarisse, Mauricio 53
Bécquer, Gustavo Adolfo 35
Campoamor, Ramón de 23
Carrere, Emilio 47
Celaya, Gabriel 79
Cruz, San Juan de la 13
Espronceda, José 19
Ferrán, Augusto 31
García Lorca, Federico 85
Jiménez, Juan Ramón 97
Mendoza, Fray Iñigo de 5
March, Susana 67
Mercader, Trina 71
Palacio, Manuel del 27
Pemán, José María 59
Repáraz Landa, Valentín 43
Río, Antonio de 113
Unamuno, Miguel de 39

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar - Agiriak (Eleiza kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuiñak
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkiak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkiak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkiak euskeraz
36. Españi'ko Olerkiak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A.
38. Kikero'ren eskutitzak.
39. Ezpata zorrotza - Ezkutuko aria (olerkiak - antzerkia)
40. Andersen'en Ipuiñak
41. Sortaldean - Gabon - abestiak (Gallastegi - Bengoa)
42. Ego - Ameriketako olerkariak euskeraz
43. Martiriei (Tertulian)
44. Liturji - Goratzarreak II
45. Españi'ko Olerkariak euskeraz III

LABURPA-I
BIBLIOTEKA
Sarr 34.56
Gaia.
Tokia.

Etxebarria'tar J. A.

ESPAÑI'KO OLERKARIAK EUSKERAZ

Labur eta errez, era berean eder, Españi'ko olerkariak euskaldunai ezagutuarazo. Onen ondoren euskal-olerkiak zabaltzeko asmotan. Gure erritarrak eskolatzeko bide ezin obea.

Gaztelarrak berbera egingo ba'lebe, a zelako pake!